

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2021eko azaroa | 003. zenbakia | 1,50€



KARIMUNJAWA UHARTEAK

Javako paradisu galduak

KAMAKURA | UGANDA | TURKU | SEESTADT | GALAPAGOAK | PITILLAS | TIBILISI

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefona	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektronikoko bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruina distribution & services, S.L. ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruina distribution & services SL ren (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezereztzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 003

2021eko azaroa

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 152.
zenbakia
litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Nikename
/ Getty Images

ARGITARATZAILEA:

Astero.
Herritar Berri SLU.
Zazpi Haizetara
aldizkariaren lan
taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki
Agirrezabalaga

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +
Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso
Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A
20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@astero.net

TELEFONOA:

943 31 69 99
www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek
Inprimategia.
Zamudio





06 KARIMUNJAWA IRLAK Indonesiari buruz hitz egiten denean, gehienei Bali uhartea datorkie burura, ederrentzat jo izan delako hainbat eta hainbat alditan. Badira, ordea, turistentzat ezezagunak diren paradisu galduak, behin baino gehiagotan amestutakoak. Adibide bat: Karimunjawa parke nazionala, Javako iparraldeko koralezko arrezifea, hondar zuriz osaturikoa.



28 TURKU Finlandiako hiririk zaharrena da eta abiapuntu egokia Artxipelagoko Parke Nazionala eta Åland uharteak bisitatzeko. Lasaia eta dibertigarria da.

14 KAMAKURA “Lur Purua”ren hiriko brontzeko Buda Handiak handientsu eta estoiko meditatzen du mendeetan zehar, izukaitez. Inguruaz gozatu dugu.



22 UGANDA Sekulako aberastasuna du, bai paisaietan, bai faunan, bai kulturalki, Afrikako mapetan ertaina edo, are, txikia dirudien arren.



36 SEESTADT Vienako auzo berezia da, emakumeak baitira diseinatzaile eta arkitektoak, etxe eta kaleen inguruko erabakiak hartzen dituztenak.



42 **BIDAIARI** Galapagoak, urpeko laborategi erraldoi. 48 **BERTATIK BERTARA**: Pitillaseko aintzira 52 **EGIN PLANAK**: Literaktum, Basterretxea, Urratsez urrats Gasteizen, Santurtzikiko Antzerki Jaialdia, «Diskomania»... 56 **HIRIAK LABURREAN** Tbilisi 60 **MUNDUAN PASIERAN** Plastikoa: kontzientzia arte bihurtuta, Marathon des Sables, Murakami liburutegia, Marsk Tower...





AI YERWENG

Laino itsaso baten
gainean oinez,
600 metrora

Ai Yerweng du izen ofiziala. Thailandian dago, Betong barrutian, zehazki, Yala herrialdean. Eta Asiako hego-ekialdeko *skywalk* luzeena izateaz harro dago, nahiz eta pandemiaren ondorioen eraginez urte amaierara arte ez duen turisten bisitarik jasoko. Bertakoak ere, nonbait, irrikaz zain daude behatokiak eskaintzen dituen panoramikez gozatzeko.

Argi dago Ai Yerweng Thaiandiako amu turistiko erakargarri bihurtuko dela. Eta ez da, ez, harritzekoa! Izan ere, bertigo sentsazio zirrargarria ziurtatuta izango dute 61 metroko beirazko zubian pasieran ibiltzera ausartzen direnek.

Laino itsaso baten gainean ibiliko dira, 600 metrora. Eta handik sekulako irudiaz gozatuko dute. Une magikoa biziko dute, segur aski, haran ikusgarri baten aurrean.

KARIMUNJAWA UHARTEAK

Javako paradisu galduak

Testua eta argazkiak Ura ITURRALDE





Argi dago Indonesiari buruz hitz egiten denean, guztioi Bali uhartea datorkigula burura, ederrentzat jo izan delako hainbat eta hainbat alditan. Badira, ordea, turistentzat ezezagunak diren paradisu galduak, aho zabalik uzten dituztenak, behin baino gehiagotan amestutakoak. Adibide bat: Karimunjawa parke nazionala, Javako iparraldeko koralezko arrezifea, hondar zuriz osaturikoa.

Gidaliburuetan ia aipatzen ez den arren, gure bidaia honen helmugara iristeko abiapuntua Yogyakarta – «Jogja» bertakoentzat– hiria da. Bereziki polita ez izan arren, hiri gaztea da, kultur proposamen ugari eskaintzen dituena. Izan ere, kaleetan edonon aurki daitezke musika taldeak, antzerkiak... Giroa, benetan, atsegina da. Lehenengoa –agian, famatuena– munduko tenplu budistarik handiena da eta, zalantzarik gabe, Indonesiako toki ederrenetarikoa. Ohikoena egunsentian bertaratzea da, tour antolatu batean, gidaren azalpenak entzunez bertako historia hobeto ulertu ahal izateko. Gehienetan, eskaintzen diren bisita gidatueta Borobudur eta, ondoren, Prambanan ikusteko aukera izaten da. Jogja hiri erdigunetik abiatuta, gutxi gorabehera ordubete behar da. Borobudur benetan ikusgarria izan arren, Prambanan are erakargarriagoa da, agian turista gutxiago izaten delako eta, horrez gain, gunea osatzen duten tenplu txikien tartetik eguzki-irteera ikus daitekeelako. Eta, benetan, merezi du.

Jogja, orokorrean, zehaztutako norabiderik gabe ezagutzea polita bada ere, gune turistiko aipagarrienak hiritik kanpo daude: Borobudur eta Prambanan tenpluak. Lehenengoa –agian, famatuena– munduko tenplu budistarik handiena da eta, zalantzarik gabe, Indonesiako toki ederrene-



tarikoa. Ohikoena egunsentian bertaratzea da, tour antolatu batean, gidaren azalpenak entzunez bertako historia hobeto ulertu ahal izateko. Gehienetan, eskaintzen diren bisita gidatuetan Borobudur eta, ondoren, Prambanan ikusteko aukera izaten da. Jogja hiri erdigunetik abiatuta, gutxi gorabehera ordubete behar da. Borobudur benetan ikusgarria izan arren, Prambanan are erakargarriagoa da, agian turista gutxiago izaten delako eta, horrez gain, gunea osatzen duten tenplu txikien tartetik eguzki-irteera ikus daitekeelako. Eta, benetan, merezi du.

Indonesiako hiriburu kulturalean pare bat egun igaro ondoren, atzerritar gehienek hegazkinez Balira salto egiten dute, oporraldia bertako hondartza paradisiakoetan amaitzeko. Alabaina, aukera polita da Karimunjawa irletara hurbiltzea, horietara iristeko bidea erraza izan ez arren. Agian, hala ere, ideia horrek motibatu dezake gehien bidaiaria, bidea zaila izan arren turistarik gabeko paradisua aurkituko duela pentsatuz akaso.

Gidetan informazio zehatzik ez dagoenez, hobe da bertakoei galdetzea abiatu aurretik. Neuri bi aukera gomendatu zizkidaten Jogjan: Jepara-ko edo Semarang-go portuetara abiatzea itsasontzia hartzeko. Lehenengoa 90 kilometrora dago; bigarrena, berriz, 120 kilometrora. Azkenean, Jepara-ra joateko erabakia hartu nuen, baina ez soilik gertuago zegoelako, baizik eta ferry gehienak bertatik irteten zirelako.

**Java iparraldeko
kostaldean
galdutako
Karimunjawa
uharteak
aipatzean,
iraganean
ainguratutako
paradisu lasai eta
urrun gisa deskriba
dezakegu. Hori da
ferrytik jaitsi
bezain laster
sentitzen dena.**



Autobusez iritsi eta, jaitsi bezain laster, portura joan nintzen. Bertan esan zidaten goizeko ferrya irtena zela eta hurrengo egunean ez zegoela garraio publikorik. Beraz, argi dago denbora kontuan izan behar dela, batez ere bizpahiru egun behar direlako bidaia osatzeko eta, jakina, hiru egun galtzeko prest daudenek soilik goza dezaketelako abentura txiki honekin. Hala ere, egoera horretan, orduak herria ezagutzeko aprobetxa daitezke, benetan merezi du-eta!

Jepara ezaguna da Indonesian, batik bat zura lantzeko arteagatik. Kalez kale oinez ibiltzen bazara, berehala konturatuko zara oso trebeak direla. Etxeak, aulkiak, mahai sendoak, elefanteak, arranoak eta liluratuta utziko zaituzten hamaika irudi harrigarri ikusiko dituzu. Gainera, ebanista guztiak poligono berean daudenez, erraza da bertakoei galdetuta iristea.

Aipatutakoa nahikoa ez balitz, badaude edertasun handiko beste zenbait leku bidaiaariaren gozamenerako; esaterako, Air Terjun Songgo Langit ur-jauziak. Ordubete inguru behar da motoz bertaratzeko. Dena dela, abentura askoz ere arinagoa, dibertigarriagoa eta interesgarriagoa izan daiteke geldiuneak egiten badira bidean zehar sakabanaturik dauden herri txikietan. Arroz-terrazza ugari ere badaude, atzerritarrei betiere deigarriak egiten zaizkienak.



Biharamunean Pantai Bandengan hondartzara joan nintzen. Lasaiago ibiltzeko. Horixe izan zen Karimunjawara iritsi aurretik Jeparan bisita-tutako azken lekua. Egia esan, hondartza ez da oso erakargarria, baina hurbiltzen denak jende atseginarekin egingo du topo, kanpotarrekin hitz egiteko prest dauden herritarrekin. Gainera, zumba dantzatzeko aukera ere izango du. Dohainik!

KARIMUNJAWA Goizean goiz ailegatu nintzen portura ferrya hartzeko asmoz. Bi daude, egunaren arabera: Slow Boat (4-5 ordu behar dituen Karimunjawara iristeko) edo Speed Boat (2 ordu). Jakina, komeni da azkarrena hartzea.

Java iparraldeko kostaldean galdutako Karimunjawa uharteak aipatzean, iraganean ainguratutako paradisu lasai eta urrun gisa deskriba dezakegu. Hori da ferrytik jaitsi bezain laster sentitzen dena. Kokondo eta hareatza amaigabez inguratutako hondartza txikiak, hutsik; ni neu izan nintzen, ordu hartan behintzat, iritsi zen turista bakarra. Sinestezina.

Uharte txikiz osatzen den artxipelagoa da; handiena Pulau Karimunjawa da. Portua, jatetxeak, lotarako aukera... Hotelak badiren arren, egonaldia herriko norbaiten etxean igarotzeko eskaintza ere jasoko dute atzerrita-

Karimunjawa uharteek aukera paregabea eskaintzen dute paradisu txikiak ezagutzeko eta hareazuriz eta ur gardenez inguratutako irla guztiz birjinen artean gozatzeko. Irudiek erakusten duten bezala, edozein txoko da benetako harribitxia.



rrek. Niri Yanan izeneko mutil gazte bat hurbildu eta bere familiarekin bizpahiru egun igarotzeko gonbita egin zidan. Noski, baietz esan nion birritan pentsatu gabe, aukera ezin hobea zelako bertakoak nola bizi diren bertatik bertara ikusteko.

Etxe xumea zen; nire gela, handia eta txukuna. Ama, aita, amona eta aitona aurkeztu zizkidan. Atseginak oso, baina ezin haiekin jardun, ez zekitelako ingelesez.

Arroza bazkaldu eta, ondoren, Yananek, keinu bat eginez, gidari lana egin zuen niretzat. Bazekien turista batek zer ikusi nahiko lukeen herrian; nirekin, behintzat, bete-betean asmatu zuen, batez ere portura eraman ninduenean snorkeling egitera.

ISLAND HOPPING Hurrengo goizean, Yanan-en etxean primeran lo egin ondoren, bezperan erreserbatutako tourra egitera abiatu nintzen goizean goiz. Ni eta beste bi neska besterik ez geunden zain, Sonia eta Laura, katalanak. “Island Hopping” izena du ibilbideak, uhartez uharte itsasontzi txiki batek egiten duena. 7 euro baino ez zuen balio eta bidaia zoragarria izan zen.

Orduak eman genituen paradisu txikiak ezagutzen, harea zuri eta ur gardenez inguratutako irla guztiz birjinen artean. Eta hantxe, gu bakarrik. Beraz, turistarik gabeko paradisu bila dabiltzanak hemen, Karimunjawan, dute ametsa betetzeko aukera. Alabaina, komeni da kontuan hartzea, Java eta Bali ez bezala, herrialde musulmana dela eta, ondorioz, hondartzetan emakumeak guztiz estalita egoten direla. Honelako tour turistikoetan, ordea, emakumeak bikinian jar daitezke eguzkipean, lasai-lasai, arazorik gabe.

Behin han egonda, pena litzateke snorkeling ez egitea koralezko lorategi artean eta koloretako arrainez inguraturik. Horretarako, Cemara Besar

eta Menjangan Kecil uharteak dira lekurik apropos eta ikusgarrienak. Marrazo txikiz jositako igerileku batera ere gertura daiteke bisitaria, elkarrekin igeri egiteko. Bazkalorduan barbakoa prestatu zuten eta arrain freskoa jateko parada izan genuen. Eguna bukatu zela uste genuenean, eguzki-sarrera itsasontzitik ikusteko parada eskaini zigun gidariak. Ikus-kizun benetan ederra!

Snorkelinga ez ezik, urpekaritza egiteko aukera ere badago Karimunjawan; adibidez, Salma Dive Center-eko ekipoarekin. Maila handiko urperatzeak dira; hondoratutako itsasontzi batera ere hurbiltzen dira nahi dutenak.

PORTUAZ GOZATU, BERTAKO ARRANTZALEEKIN Hondartza ederrenetarik urrun, Pulau Karimunjawako portu inguruan elkartzen dira arrantzaleak. Polita da bertara joan eta haiekin hitz egitea, gehienek ingelesez ez jakin arren. Oso alaiak eta lagunkoiak dira. Jatetxerik gomendagarrienak ere hantxe, portuan, aurkitzen dira, baita Night Market merkatua ere, arrain freskoa lortzeko lekurik egokiena, zalantzarik gabe. Lasaia da herria eta bakarrik joaten denak ere ez du izango inolako arriskurik.

Tour gidariek kayak-ak ere eskaintzen dituzte, 6 euroren truke. 10:00etan hasi eta 16:00etan amaitzen da jarduna. Mangladiak zeharkatuz, irla ezezagunetara iristen da. Hala ere, zenbait bisitariren esanetan, Nirvana resort-ak duen hondartzan kayak egitea omen da Karimunjawan izan daitekeen esperientziarik ahaztezinetakoena.

Bestalde, uharteak dituen txoko guztiez gozatzeko ia ezinbestekoa da motor bat alokatzea. Oro har, bidea erraza da. Asfaltatu gabeko zati txikiak dauden arren, trafiko gutxi du errepide nagusiak. 4 euro inguru ordaintzen da motorra eguneko, gasolina barne.

HONDARTZAK ETA BUKIT LOVE BEGIRATOKIA Tanjung Gelam, Sunset eta Batu Topeng dira hondartzarik famatuena. Motoz edo taxiz iritsi daiteke. Bidea oinez ere egin daiteke, herriaren erdigunetik 4 kilometrorra besterik ez baitaude. Arazoa da gainerako hondartzak ere ezagutu nahi dituenak ibilbidea luzatu egin behar duela, Barracuda Beach, Bange beach eta Anouk Beach hondartzerara iristeko, besteak beste, horiek guztiak urrutiago daudelako. Kokondo inguraturiko basoa igaro ondoren, Sunset hondartzako txiringitoan har daiteke atsedena, Bintang zerbeza eskuan duzula eguzki-sarreraz gozatzen duzun bitartean.

Hori bai, irla guztiak goitik ikusi nahi duenak Bukit Love begiratokira igo beharko du, bereziki ilunabarrean. Une magiko hori, dena den, pixka bat zapuztu zen irletan lau egun igaro ondoren itzultzeko ordua iritsi zenean. Berriro ere Jepara-ra joateko Slow Ferry-a hartu behar izan nuen; ez nuen beste aukerarik. Ez zen une erosoa izan. Bospasei ordu eguzkitan kiskaltzen, infernua! Barkua jendez gainezka. Esertzeko lekurik gabe, itzalik gabe eta manta batez babestuta. Hala eta guztiz ere, zoragarria izan zen esperientzia. Batek daki paradisu galdua izaten jarraituko ote duen denbora luze.

GIDA PRAKTIKOA

NOIZ JOAN

Javan musulmanak direnez, ez da komeni ramadan garaian joatea, itxita egongo baitira uharteetako atrakzio turistikoak. Apiriletik azarora bidaiatzea da gomen-dagarriena, sasoi lehorrean.

NOLA IRITSI

Uharteetara iristeko biderik ohikoena Jakartatik Yogyakarta autobusez hurbiltzea da. Ondoren, beste autobus batean Jepara herrira joan behar da, eta, azkenik, ferry bat hartu irletara iristeko. Jakarta-Yogyakarta ibilbidea egiten duten autobusak daude: goizeko bostetatik aurrera, autobus ugari irteten dira Jakartako Kalideres terminaletik. Komeni da alde zurretik ordutegia galdetzea, webguneak ez direlako oso fidagarriak. Bidaiak hamabi orduko iraupena du eta prezioa hamar hamabi euro artekoa da. Yogyakarta-Jepara ibilbidea egiten duten autobusei dagokienez, berriz, asko daude; goizeko seietan irteten dira lehenak, Kantor Rimba Raya geltokitik. Bidaiak bost ordu inguruko iraupena du eta prezioa zortzi euro ingurukoa da.

NON LO EGIN

Agian, aukerarik onena bertakoen etxetan lo egitea da. Portuan egoten dira ferryaren zain etxeak eskaintzeko. Beste aukera on bat honako ostatu hau da: The Bodhi Tree Karimunjawa.

NON JAN

Karimun uharte nagusian ez dago aukera handirik, baina merkatura hurbil daiteke arrain freskoa jatera.





Kamakura, Lur Puruaren hiria

Testua eta argazkiak **Xabier BAÑUELOS**

Kamakura hiriko brontzezko Buda Handiak handientsu eta estoiko meditatzen du mendeetan zehar, izukaitz. Behin «daibutsu» erraldoiaren betiereko bidaiako Lur Puruaren nirvana bertatik bertara dastatu eta gero, hirian zehar galdu naiz, Kamakurako baso eta tenpluen edertasunarekin gozatzeko asmoz.



**Erreportajea zabaltzen,
Kotoku-in tenpluko
buda ikusgarriaren
irudia eta lerron
gainean, berriz,
Maigetsu-in tenplura
sartzeko eskailerak.**

Bere idulkiaren gainean lo dagoela dirudi; loto-lo-rearen jarreran jesarrita dago, begiak itxita ditu eta ezpain sendoak, eta, bertatik bertara itzela iruditut zaidan arren, dhyani mudra irudikatzen duten eskuek sosegua helarazi didate. Kamakura-rako brontzezko Buda Handia da, daibutsu zinez miragarria. Nire imajinarioan eta bertara eraman ninduten urratsetan, Kamakura bidaia sentimental bat izan zen niretzat. Eta oraindik ere horrela da. Sagami badiaren goi-ibarrean kokatuta dago Japoniako hiria, itsasoak eta mendiek inguratuta, eta bidaia bateko helmuga hutsa baino zerbait gehiago zen niretzat bertaratu nintzenean. Askoz gehiago: haurtzaroko amets bat



betetzea zen niretzat Kamakura ezagutzea. Eta haur baten ametsak errealtate bihurtzen direnean, norberak bere buruari egindako amets bat betetzen denean, haurtzaroa aspaldi atzean utzita eta dagoeneko mende erdia pasata izan arren, bizitzak taupada berean bihotza bizkortzen eta lasaitzen duen txinparta oparitzen dizu. Tokioko hego-mendebaldean kokatutako hiria ezagutzea ilusio bidaiariz betetako haurtzaro batekin zorrak kitatzea zen niretzat, bidaiak orduan liburuak pilatuz eta argazki zaharrak laztantzen egiten banituen ere.

Ezaguera dudanetik, etxeko liburutegiko liburu bat izan da beti niri kultura: Roland Gööck alemanaren “Maravillas del mundo” (Munduko mirariak), jada desagertutako Circulo de Lectores argitaletxeak 1968. urtean kaleratua. Liburuak nire fantasia guztiak hegan jartzen zituen azpтитulu deigarri batekin: “Naturaren mirakuluak eta gizakiaren egintzak, Niagarako ur-jauzietatik espazioko baseetara”. Liburuaren azala bera ere ikusgarria da oso: garaian sortu berri zen Surtsey uharteko argazki liluragarria, laba gori-gori dela. Zalantzarik gabe, ni bezalako haur barentzat mundu ezezagun batean murgiltzeko etengabeko gonbidapena zen liburu hura. Behin eta berriz begizatzen nituen liburuaren orriak, ia-ia guztiz gastatzeraino. Kuriositatea, erakarpena, desira, lilura nagusitzen ziren nigan, eta beti ondorio berdinerara heltzen nintzen: «Egunen batean leku horiek guztiak bisitatuko ditu».

Liburuaren 144. eta 145. orrialdeetara heltzean, gehien liluratzen ninduen irudiarekin egiten nuen topo beti: Kamakurako daibutsu ikusgarria. Behin eta berriz, arrazoi zehatzik gabe, bakea helarazten zuen estatua erraldoiarekin erabat txundituta geratzen nintzen. Ordutik, Kamakura eta bertako amitabha buda ikusgarria nolabaiteko «horizonte galdua» bilakatu ziren niretzat, James Hiltonen “Lost Horizon” eleberria gogoan.

Egunen batean Rudyard Kiplingen poema erreztatuz bisitatuko nuen nire Shangri-La pertsonala bihurtu zen Kamakura: «O ye who tread the Narrow Way / By Tophet-flare to Judgment Day, / Be gentle when ‘the heathen’ pray / To Buddha at Kamakura!». Eta bai, handitu eta Kamakura bisitatu nuen. Zorteko izan naiz, eta, liburuan agertzen diren leku guztietatik –esku artean dut lerrook idazten ari naizen bitartean–, ia guztiak bisitatu ditut dagoeneko, baina, egiari zor, ezerk ez dit daibutsu erraldoiaren aurpegi atseginaren azpian jesartzeak besteko ilusiorik egin.

BUDA HANDIA Buda, “Iratzarri dena”, da Siddhārtha Gautama printze hindu aszetari buruz hitz egiteko sarrien erabiltzen den ezizena. Izan ere, Gautama Budaren irakaspenetan oinarrituta eraiki zen budismoa, jainkorik gabeko sinesmen bat dena, nik neuk behintzat erlijio deitu nahi ez dudana. Gaur egun, budaren irudikapena nonahi aurki daiteke bizitza, existentzia bera, ulertzeko modu hori gidari duten lurraldeetan.

Normalean budaren irudiek arrazoizko tamaina izaten dute, eta batsudan izeneko armairu edo plataforma arruntetan izan ohi dira; tenplu edo etxebizitzetan kokatutako kapera horietan elementu sakratuak jartzen dituzte budistek. Aldiz, ez da ezohikoa ere Budaren eskultura erraldoiak aurkitzea. Bada, Japoniako budismoaren kasuan, irudiok 5 metroko al-



tuera gainditzen dutenean, daibutsu izena hartzen dute. Askotariko materialetan landutakoak izan daitezke irudiok, baina ohikoena brontzezkoak izatea da. Normalean tenpluen barruan izaten dira, helburu horretarako preseski eraikitako sala handietan.

Kamakurako daibatsu erraldoia kontenplatzeko Kotoku-in tenpluan sartu beharra dago, hau da, Lur Puruaren Eskolaren jodu-shu adarraren santutegi batean. Lur Puruaren Eskola Mahāyāna korrontearen adierazpen japoniarra da. Mahāyāna adarraz gain, beste bi korronte handi ere baditu budismoak: Theravāda eta tibetarra. Bada, Kamakurako daibatsu ikusgarria loto-lorearen jarreran 1252. urtetik meditatzen ari den buda eseri bat da, aipatu eskolan Argi Infinitu Osoki Kontzientea izendatzen dutena irudikatzen duena. Budaren eskuak hanken gainean jarrita daude, erpuruak elkar ukitzen daudela; beilatzen ari den budaren begiek, berriz, aurpegi asaldagaitza irudikatzen dute.

Budaren irudia itzela da: 13 metroko altuera du eta 93 tona pisatzen ditu. Pentsa, buruak bakarrik 3 metro ditu eta belaunen arteko distantzia 11



Ezkerrean, Kencho tenplua eta buda (Kotoku-in). Ondorengo orrialdeetan, Kenchoko harribitxi bat, Komachidori kalea eta Hachiman gu santutegia.

metrokoa da. Hori bai, benetan ikusgarria dela ukaezina bada ere, ez da ez Japoniako zaharrena ezta handiena ere. Irudiak 769 urte baditu ere, Asuka herriko Asuka-dera tenplukoa 600 urte zaharragoa da eta Nara hiriko Todai-ji tenplukoa 5 metro altuagoa.

Datuak datu, Kamakurako buda berezia da. Lehenik eta behin, aire zaba-lean dagoelako, 1498an tsunami batek buda hartzeko eraikitako tenplua guztiz txikitu zuelako irudia aterperik gabe utziz, lotura guztietatik aske. Bigarrenik, ezin dotoreagoa delako eta ezin hobeto uztartzen dituelako handitasuna eta xehetasun finenak. Eskultura lana bikaina da, tradizioaren eta modernitatearen arteko sintesi paregabea, egileak intemporalitatearen gakoa aurkitu izan balu bezala –ez dago argi egilea Ono Goroemon edo Tanji Hisatomo den–.

Hirugarrenik, edertasun gorenekoa izanik ere ez delako ez arranditsua ez gehiegizkoa. Alderantziz, Ekialdeko estoizismoaren isla argia da, eskulturaren lerroen neurritasunak eta soiltasunak are gehiago indartzen dutena, baita denboraren joanak oparitu dion patina berde ilunak ere.

**Budaren irudia
itzela da: 13
metroko altuera du
eta 93 tona
pisatzen ditu.
Pentsa, buruak
bakarrik 3 metro
ditu eta belaunen
arteko distantzia 11
metrokoa da.**

Laugarrenik, sosegua, patxada, oreka, zabaltzen dituelako, kontenplazio-rako gonbidapena luzatzen duelako, munduko loturak alde batera utzi eta oraina kontzienteki gure barren-barrenetik bizitzeko deia, garrantzi-tsuaren eta azalekoaren arteko bereizketa egitekoa, norbere burua mai-tatu eta errespetatzekoa inguruan dugun guztiarekin harmonian. Eta bosgarrenik, bere hustasunagatik. Izan ere, barnetik hutsik dago; barnera sartzeko aukera dago, norbera batbederatik erantzi baina norberaren bai-tan mantentzean lortzen den jakintasunera igarotzea irudikatuz; ezin ahaztu ere kanpoan geratzen dena gogorarazteko argiari sartzen uzten dioten budaren bizkarreko leihatilak. Bene-benetako maisulana da.

ARO BATEN HERENTZIA Kamadurako daibutsu ikusgarria ulertzeko Japoniako historiara jo beharra dago ezinbestean. Azken mendeetako de-kadentziaren ostean, Kamadura Tokioko konurbazio erraldoiko oporre-tako hiri bat besterik ez da egun, Kanagawa prefekturan dagoena, Yokohama hiriaren ondoan. Baina, garai batean, dirdira berezia izan zuen. XII. mendera atzera egin behar da horretarako, Morimotok –ez Yo-ritomo– Taira klana garaitu zuen garaira. Garaipen horri esker, 1192an shogun izendatu zuten Morimoto, eta artxipelagoko lehen bakufu edo gobernu militarra ezarri zuen, gobernuaren egoitza Kiototik Kamaku-rara eraman eta bere izena daraman shogunerriari hasiera emanaz. Ezerk ezin zion itzalik egin Japonia feudaleko lehen hiriburuari, ezta Nara eta bertako buda erraldoiak ere, eta, ondorioz, daibutsu ikusgarri bat eraikitzeke agindu zuen. Morimotoen heriotzaren ostean, Hojo klanaren esku geratu zen gobernu, boterean mantendu zena 1333. urtean Go-Daigo Tenno enperadoreak garaitu zuen arte.

Porrotaren ondoren, boterea Kiotora itzuli zen eta Kamakura ahanzturan erori zen. Hori bai, bi mende luzeko dirdirak, nola ez, ondare aparta utzi zuen hirian. Hiriburutzaren garaiak, gainera, bat egin zuen budismoa Ja-ponian zabaldu zen aroarekin, eta, ondorioz, Kamakura tenplu budistez eta sintoistez bete zen. Gaur egun edertasun eta espiritualtasun multzo harmoniatsua osatzen dute. Tenplu horien artean nabarmentzeko mo-dukoak dira Engaku-ji eta Meigetsu-in. Lehendabizikoa XIII. mendean eraiki zuten Kublai Kan mongoliar enperadorearen aurka Japonia defen-datzeke borrokan eroritako soldaduen alde otoi egin zezaten monjeek; bigarrena, berriz, landarez inguratuta dago, eta, tenpluan sartzeko, albo banatan hortentsia ezin ederragoak dituen eskalinata bat igaro behar da.

Hirian bisitan merezi duten beste hainbat tenplu ere badaude, tartean honakoak: Kencho-ji monasterioa, herrialdeko zaharrena; Hasedera ten-plua, erruki infinituaren bodhisatva den Kanon Juichimen jainkosaren tailu ederra eta Jizo Bossu haurren eta bidaiaren zaintzailea den jainko-saren ehunka estatua txiki gordetzen dituen; eta Tsurugaoka Hachi-man-gu santutegi sintoista, Hachiman gudaren jainkoari eskainitakoa.

Eta Buda Handira heltzeko, zer hobe Daibutsu Ibilbideko muinoetatik oinez egitea baino, basoak, paisaia argi-ilunak eta tenplu eta santutegi txikiak zeharkatuz. Bihotz gazte baten irrikak bete aurretik, Jochi-ji, Ze-niarai benten, Sasuke inari jinja... bezalako izenek sonoritatea gehitzen diote tokion edertasunari.



GIDA PRAKTIKOA

NOLA HELDU

Trenez, JR Yokosuka linea hartuta, ordu-
beteko bidaia dago Tokiotik. Geltokiak:
Kita Kamakura eta Kamakura.

ZENAREN HASTAPENAK

Engaku-ji eta Kencho-ji tenpluetan zazen
egiteko aukera dago hasiberrientzako
saio publikoetan.

BESTE TENPLU BATZUK

Sugimotodera, Hokoku-ji, Tokei-ji,
Jomyo-ji, Enno-ji eta Zuisen-ji.

BESTELAKO LEKU INTERESGARRIAK

Komachidori kale komertziala eta Enos-
hima uhartea.







UGANDA

Bisita Afrikaren bihotzera

Testua eta argazkiak Urtzi URRUTIKOETXEA

Afrikako mapetan ertaina edo, are, txikia dirudi Ugandak, Kongoren gisako herrialdeen aldamenean. Egiaz, Erresuma Batuaren pareko azalera dauka, eta sekulako aberastasuna, bai paisaietan, bai faunan, bai kulturalki. Eremu horretan, historiaz blaitutako aintzira erraldoietatik mendi-tontor elurtuetaraino, oihan zein sabana, merezi du tartea hartzea askotariko geografia honen harribitxiez gozatzeko.



Erreportajea zabaltzen, Kob izeneko antilopeak sabanan, Queen Elizabeth parke nazionallean, Ruwenzori mendiak atzean dituztela. Lerroon goialdean, hipopotamoak Katunguru inguruan, Edouard eta George kanalen arteko Kazinga kanalean, eta mendiko gorilak Bwindiko basoan. Hurrengo orrialdeetan, arrantzaleak Victoria lakuan eta azoka postu bat Kampala hiriburua inguratzen duen errepeidean.

Bwindi Ugandako bidaiaren amaiera da askoren-tzat. Ibilbidea hiriburuan hasita eta erlojuaren kontrako norabidean lekurik ikusgarrienak bisitatu, txangoaren harribitxia gordetzen dute hegomendebaldeko txoko zoragarri honetan. Denok ez dugu bidaia Kampalan hasten, horratik. Afrikaren erdialdean egoteak lurralde hau beste herrialderen batekin batera ezagutzea ahalbidetzen dizu, edo ibilbide luze bateko etapa bihurtzea.

Ruandatik iritsi gara, Kigalitik hiruzpalau ordura baitago Ugandako muga; Euskal Herrian bezala bidearen eskuinaldean gidatzetik, beste aldera pasatu, eta ezkerretik doaz autoak Ugandan, herrialdearen iragan britainiarra gogoan. Bi herrialde horiek eta Kongoko Errepublika Demokratikoak bat egiten duten Virunga sumendien inguruan bizi dira mendiko gorilak, mugek bereizita baina oihanak batzen dituen eremu txikian. Baimen berezi eta garestiak behar dira Bwindiko oihanean bizi diren gorilak bisitatzeko trekkingetan parte hartzeko –Ruandan baino merkeagoa



Uganda ez da auzoko dituen Tanzania eta Kenya bezain ezaguna safari turismorako, baina sekulako parke nazionalak ditu, Afrikako animaliarik esanguratsuenek ditu.

da, betiere–, baina herrialde honetara bisitan datozenek betiko gogorazten duten esperientzia da. Oso neurri bereziak hartu behar dira, beharrezko distantzia gorde gorilekiko, musukoa jantzi eta segurtasun pauso batzuk ikasi.

Oihaneko ibilbidea eginda, gorila familiarekin topo egitea oso zirraragarria da. Gidariak berak erakusten du non den bizkar urdinduko alfa arra, baina lasai eta patxadaz doa bisita. Nork bere lekutik inor ez haserrearaztea da gakoa, behar baino gehiago ez hurbiltzea. Argazkiak egitea, zelan ez, baina argazkirik gabeko unea ere gozatzea, bizitzan horrelako une gutxi izango baita, oihanaren erdian bertatik bertara egoteko. Eta mendian behera joatean ere, bizitakoa dastatu, gogoan berreraiki eta uneaz hausnartu. Sekulako altxorren gordelekua da Bwindi ingurua, baita hori horrela uztearen ordain garestia ordaindu dutenena ere: batwa herri indigena, esaterako, parke nazionalaren aitzakian kanporatu zuten.

NATURA BIZIA Errepide nagusietara hurbilduta, herrialdearen men-debaldean jarraitu dugu kilometroz kilometro, lurraren marroiaren eta



ingurunearen berdearen liluran. Biharamunean, jaikitzerakoan, laino itxia dago Queen Elizabeth parke nazionalean, baina hura desegitean, Rwenzori mendien handitasunak harrapatu du gure begirada. Parkeko sabana giroarekin kontraste izugarria egiten dute mendi garaiek, tontorrak elurtuta dituztela.

Uganda ez da auzoko dituen Tanzania eta Kenya bezain ezaguna safari turismorako, baina sekulako parke nazionalak ditu, Afrikako animaliarik esanguratsuenekin. Queen Elizabeth-en sartu eta gutxira izan da naturaren eztanda, gazela dotoreak (kob izena du hemengo antilope bereziak), bufalo saldoa, baita, halako batean sabanan etzanda, lehoi familia bat ere. Gero, gidaria koroadun kurrilo bikote baten aldamenean geratu da, Ugandako hegazti nazionala dela gogorarazteko. Harro dabilta bi hanka finen gainean herrialdearen bandera koloretsuko hegaztiak.

Parke nazionalatik Katunguru herrira itzulita, Kampalarantz doan adiskidearekin topo egin bitartean Kazinga kanalean ibaian txangoa hartu dut. George eta Edouard aintziren artean doa; eskualdea are bereziagoa egiten dute Rwenzoriko mendien lerroan dauden aintzirek, ia Murchinson ur-jauzi ikusgarrietara iritsi arte. Beste aintzira handiago batera bidean goaz, eta, horretarako, Kampala hiribururaino joan behar dugu lehendabizi, Katunguruko hipopotamo, bufalo, krokodilo eta azken orduan agertutako elefante taldeari agur esanda.

Danson adiskide idazlea Rwenzoriren magaleko herri batekoa da jatorriz, Kampala hiriburuan irakasle lanean aritu arren. Bidean pasatzen goazen herrien berezitasunak zehazten dizkigu, eskualde bakoitzeko hizkuntza zein den jakinaraziz. Ingelesa da hizkuntza koloniala, eta luganda estatu-hizkuntza gisa darabiltena. Swahilia ere ezaguna da; horrez gain, herri edo eskualde bakoitzak badu bere hizkuntza ere. «40 hizkuntza baino gehiago ditugu, baina herrialde bakarra gara; eztabaidak eztabaida, batasun sentipena dago. Ruandan kontrakoa gertatzen da, hizkuntza bakarra dute funtsean, kinyaruanda, baina hara zer nolako txikizioa egiteko gai izan ziren».

NILOREN ITURBURUA Kampala hiriburura iritsi aurretik, ekuatorearen marra igaro dugu, o paralelotik hegoaldera egotetik iparrera pasatu gara. Bidearen hasierako herrietan, artoa, tea edo kakaoa lantzeko soroe-tan dihardute lanean, emakumeek bereziki; aurrera egin ahala herriak gero eta handiagoak dira eta merkataritza gehiago dago, batean zein bestean, umeak nongura ageri dira. Baina funtsean asfaltozko lerro bat eta lurgorrizko pistak dira, kamioi handiak gainezka egin beharrean, eta motorrak hiri edo herri bakoitzaren sarreran (boda-boda deitzen dieten taxi-motorren geltokiak). Bide bazterrean, saltoki txikiak, bananak, xaboia edo garbitzeko produkturen bat eta bertan frijitutako opilak salgai dituztela. Umeren batek «muzungu!» (zuria) egin du oihu. Idi Amineren dikta-dura-urte izugarrien ostean, herrialdearen indizeak hobetuz joan ziren, baina urte hasierako hauteskundeek berriz ere indarkeria, errepresioa eta ustelkeria salaketak ekarri zituzten.

Hiria handia da, erraldoia, autobideak eginda ere orduak gal daitezke garai txarrean inguratzen saiatuz gero. Gaddafi meskita harro ageri da erdigunean, eta hiriko monumentuak eta Parlamentua inguratuta, Kasubi hilobietan egin dugu geldialdia. Buganda erresumako errege-fami-liaren ehorzte lekua Unescoren munduko ondarearen zerrendan dago, baina ez dira asko honaino bisitan etortzen direnak; huts-hutsik eta ba-karrik bisitatu dugu.

Halaxe ekin diogu guk ekialdeko bideari, Kenyaraino doan errepidea har-tuta, Jinjara iristeko. Munduko ibairik luzeenak nekez izan zezakeen itur-buru dotoreagorik. Victoria aintzira Afrika ekialdeko lekurik ikusgarrienetakoa da, bere handitasunean. Jinjara ailegatutakoan, ez da zaila ontzizain bat aurkitzea ibaiaren iturburutzat jotzen den lekuraino bertaraino joateko: aintziraren erdiko gune bat da, etxola bat, lekua hori dela azaltzen. Baina hortik aurrera, iparralderako bidea hartzen du ain-tziratik irteten den urak, basamorturaino lehendabizi, eta, azkenik, Me-diterraneoraino.

Nilok lehen geltoki garrantzitsua, Ugandan bertan, Murchison ur-jauziak ditu; arroila estu batean sarturik indartsu lehertzen hasten da. Burtonek, Stanleyk eta Livingstonek, XIX. mendeko esploratzaileek bereak eta bi egin zituzten txoko honetaraino heltzeko. Egun, Kampala eta Nairobi ar-tean egin daitekeen etenaldian bisitatu daiteke toki berezi hau. Ugandako bidaiaren amaiera ezin hobea markatzeko batzuentzat, eta zain duten he-rrialde liluragarri baterako abiapuntu gisa besteentzat.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

Entebbeko aireportua Kampala hiriburu-tik 40 kilometrora dago, Victoria aintzi-raren ertzean. Bilboko aireportutik eskala bakarrarekin irits daiteke, Amsterdamen, Bruselan edo Istanbulen geldialdia eginda. Afrikako inguruko herrialdeeta-tik ere badaude hegaldiak Ugandara. Lu-rrez ere irits daiteke; ohikoena Tanzania, Kenya eta Ruandatik egitea da (Nairobi-raino doazen autobusak badira, gau osoa ematen dute bidean). Kongoko Errepu-blika Demokratikoko muga itxita egon ohi da, baina Ruandan barna joan daiteke Goma hiriraino.

OSTATUAK

Hiriburuan nazioarteko hotel dotoreak daude, baina hortik kanpo ostatu xumeak ditugu, eta safarien inguruan prestatu-tako lodge garestiak ere bai, fauna basatia ikusteko tour eta guzti.

GARRAIOA

Herrialdean aurrera eta atzera dabiltzan autobus eta minibus ugari daude. Den-bora dezente hartzen dute, jendek geldit-zeko agintzen dielako tarteka eta errepideen erruz. Aukera eroso eta gares-tiena autoa gidariarekin hartzea da, noski. Edonola ere, azaleran erraldoia izan ez arren, Afrikako testuinguruan bi-dean ordu ugari eskatzen dituen herrial-dea da.





TURKU

Finlandia dibertigarriena

Testua eta argazkiak **Sergi REBOREDO**

**Apenas bi ordu behar dira, autoz,
Helsinki Turkura iristeko egin
beharreko 167 kilometroak egiteko.**

**XII. mendean fundatu zuten
Finlandiako hiririk zaharrena eta
hori da Artxipelagoko Parke
Nazionala eta Åland uharteak
bisitatzeko abiapuntua.**

Turku» hitzak «merkatu» esan nahi du, eta bere suedierazko izena Åbo da, «ibaiko etxeak» gisa itzul daitekeena. Gaur egun, Finlandiako hirugarren hirigunea da, Helsinki Handiaren eta Tampereko metropolitarrak eremuaren atzetik. Bertako bi hizkuntza ofizialak finlandiera eta suediera dira, baina ez dugu ingelesez komunikatzeko arazorik izango. Hiriaren bihotza Aura ibaiaren ertzetan dago, ezbairik gabe. Panoramika bat lortzeko modu onena gidaririk gabeko ontzi elektriko bat alokatu eta ibaian gora eta behera joatea da. Jatetxez gainezka daude ibaiaren bi aldeak; ainguratutako ontzien barruan ere badira hainbat jatetxe.

ERAIKIN ENBLEMATIKOAK Eraikin enblematikoen artean hauek nabarmentzen dira: Aboa Vetus & Ars Nova arte garaikideko museoa, Qwensel Etxea –hiriko etxebizitza burges zaharrena–, Farmaziaren Museoa, Forum Marianum –bertan ikus daiteke amarratuta Suomen Juotsen ontzia– eta Sibeliusherrialdetako musika galeria garrantzitsua, finlandiar konpositore ezagunena den Jean Sibeliusen omenezko izena duena. Monumentu nagusiak katedrala eta gaztelua dira.

Katedrala kanpotik gaztelua bezain soila da, apaindura gutxikoa; barrutik gotiko alemanaren nabeak deigarriak dira. Luteranoa da, bertako biztanleen %80en erlijioa. Suteen ondorioz, hainbat aldiz berreraiki behar izan zuten. Izan ere, Turku hogeita hamar aldiz erre da; sute larriena 1827an gertatu zen; hirigunearen hiru laurden kiskali ziren.

Gastronomiari dagokionez, onena merkatua bisitatzeko da. Bertan gazta onenetako batzuk aurkituko ditugu, gisatutako elur-orein eta altze pla-



TURKU FINLANDIA DIBERTIGARRIENA







terak dasta ditzakegu, izokina eta sardinzarra ahaztu gabe, eta grillimak-kara saltxitxa handi eta ezagunak eros ditzakegu. Juustopuoti okindegi ospetsua toki ezin hobea da ruisleipä edo zekale ogia jateko, baita karjalampiirakka izeneko pastel gaziak ere.

Ez da ahaztu behar Turku familientzako helmuga dela; haurrek ederki pasatuko dute SuperPark-en. Estalitako kirol parkea da, eta bertan skatean eta patinajea ibil daitezke, baita ohe elastikoetan ere, eta pinballeen jolastu edo hamaika kirol praktika ditzakete.

TURKUKO ARTXIPELAGOA Turkuko artxipelagoa munduko handienetakoa da, eta Baltikoko handiena: Åland eta Turku uharteen artean sakabanatuta dauden 20.000 uharteko mosaikoa da, eta uharte horietako gehienak beren egoera naturalean jarraitzen dute.

Artxipelagoaren zerrenda zabal bat Parke Nazionalea da. Paisaia askotarikoa da: uharte handiak, txikiak, irlatxoak, itsaslabarrak, eta gizakien arrastoa egon badago, baina pertsonak baino uharte askoz gehiago daude.

Artxipelagoak herrialdeko “Helmuga onenaren saria” jaso zuen 2017an. Turku hiritik abiatuta 250 kilometroko ibilbide zirkular moduko bat du, hainbat uharte ikusi nahi dituzten ziklistentzat aproposa. Turku Touring-ek ziklistentzako hainbat eskaintza ditu, bizikleta barne. Eskaintzen duten etapa luzeena 45 kilometrokoa da eta bost egunean 175 kilometro egitea proposatzen du. Autoz artxipelagoaren zati handi bat egin daiteke lauzpabost egunean, lasai joanda eta toki enblematikoenetan geldituz.

Onera da Finlandiako Gobernuak udan uhartetik uhartera joateko konexioa antolatzen duela, doako transbordadore sistema baten bitartez, eta hala, autoa edo bizikleta eramatea posible da. Neguan bidaiatzea zailagoa da tenperatura oso hotza izaten delako eta askotan ura izoztuta dagoelako.

**Turkuko
artxipelagoa
munduko
handienetakoa da,
eta Baltikoko
handiena: Åland
eta Turku uharteen
arte
sakabanatuta
dauden 20.000
uharteko mosaikoa
da.**



Erreportajea zabaltzen, Korppoo irlako kaiaren irudia. 30. eta 31. orrialdeetan, emakume bat lasai irakurtzen Nauvoko kostaldean. Aurreko orrialdeetan, zurezko plataforma bat basoan, Mossala artxipelagoan, eta emakume talde bat bizikletan Väståboland-en. Lerroon goialdean, artxipelagoko uharteen panoramika eta, eskuinean, Jungfrudansen harrizko labirintoa, Houtskär eta Galtby lotzen dituen ferrya, Turkuko udaletxe zaharra eta Aura ibaiaren ertzeko beste zenbait eraikin, eta, azkenik, jatetxe bateko terraza, Helsinkin.



Turkutik 66 kilometrora Kustavin Savipaja artisauen herrixka dago. Bertan posible da errementaria burdina forjatzen ikustea Odin jainkoaren moduan, edo urregile atsegin batek eskusiboki diseinatutako bitxi bat eroste. Errepidean jarraituz Parattulanlahti-raino iritsiko gara. Badia moduko bat da, zeinean belaontzi ugari porturatzen diren eta Peterzen's-en etxolak dauden. Toki idilikoa da eta ilunabarra ikusi bitartean garagardo batzuk hartuz erlaxatzeko aparta.

Korpo artxipelagoko uharte handietako bat da. Bere erdigunean Nestor hotela dago, bi artistak kudeatzen dutena: Pia Rousku eta bere senarra, Frank Hellgren diseinatzailea. Emakumeak artisautza tailer bat du eta bertan beira birziklatua lantzen du: ate eta leiho hautsietako kristalak jasotzen ditu eta izoztutako loreak diruditen egitura hauskorrak sortzeko urtzen ditu. Inguruan eguzki-loreen itsaso batek airea erromantizismoz bustitzen du. Larre berdeek eta lurrezko errepideek esplora ditzagula oihukatzen digute.

SORMENA ETA ABANGOARDIA Nestor hotelaren jabeen sormena eta abangoardia jantokian ere igartzen da. Jangela antzinako estiloa eta moderno uztartzen dituen benetako arte galeria da; giro rustiko eta xarmanta du, garaikide eta freskoa. William Hellgren chefak plater bakoitza artelan indibidual gisa ikusten du, zentzumen guztiak gozarazteko zer-bait. Bere sorkuntza guztien oinarrian produktu organiko eta hurbilekoak daude. Adibidez, barazkiak ondoko Isaksson landetxeak dira. Landetxean ez dago saltzailerik. Norberak nahi duena hartu, pisatu eta ordaintzen du, eskudirutan edota kreditu-txartelarekin.

Nagu herrixka xarmanta da. Aisiarako txalupatxoak dituen portua, hotel-boutique txikiak, kafetegiak eta artisautza dendak pilatzen dira itsasertzeko lehen lerroan. Bertan bizikleta bat alokatu eta inguruak esplora ditzakegu. Beste aukera bat Westerholm Culture Path delakoa oinez egitea da, Victor Axel Westerholm paisaia-margolariaren oroimenezko bidea, edota St Olof Waterway sei kilometroko bidea egitea; bide hori erabiltzen zuten erromesek Erdi Aroan Turkutik Norvegiako Trondheimera pasatzeko.

Bideak paisaia idilikoak zeharkatzen ditu San Olof aintziraren alboan, eta Virgin Dance esaten dioten harrizko labirinto kiribileraino heltzen da. Finlandian eta Suedian badira halako labirinto zenbait, non, ohiturari jarraiki, gazteek barrura sartu behar zuten erdian harrapaturik zegoen dama bat erreskatatzeko.

Naguko portutik ontzi bat irteten da Seili uhartera; egun-pasa egiteko aukera bikaina da, zalantzarik gabe. Uharte lasaia da egun; behinola legen beltza (lepra) zutenen kolonia zen. Bertan hamaiketakoa edo kafe bat har daiteke uharteko jatetxe bakarrean. Seiliko eliza ere bisita daiteke, 1700. urtekoa.

Autoz hiru ordu eta erdi eginda Helsinkin gaude berrirori eta, denbora apur bat gehiago izanez gero, bidaia amaitzeko era ederra da hiriburua bisitatzea.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

Finnair, Iberia eta Vueling-ek zuzeneko hegaldiak dituzte Espainiatik Helsinkira, 4 ordu pasakoak. Lur hartzean, erlojuan ordu bat gehitu behar dugu. Helsinki Region Transport-ek garraio publikoa eskaintzen du Helsinkiko aireportutik hirigunera joateko. Gainera, distantzia luzeko autobus linea ugarik egiten dute geldialdia aireportuan. Pohjolan Liikenne-k kudeatutako Finnair City autobusak ere har daitezke hirira iristeko; hogeit minutuan behin ateratzen dira aireportutik Helsinkirako bidean. Turkura iritsi eta Artxipelagoan mugitzeko modu errazena Helsinkiko aireportuan bertan auto bat alokatzea da praktikoena.

SARTZEKO BALDINTZAK

Finlandiara bidaiatzeko nahikoa da indarrean dauden NANA edo pasaportearen eramatea. Ez da bisarik edo agiri berezirik behar. Gidabaimenak ere balio du.

NON LO EGIN

PETERZÉN'S BOATHOUSE Parattulanlahti-n itsaso ondoan kokaturiko etxolak. 15 boathouse ditu guztira, guztiz ekipatuak. Botniako golkoa 30 metrora dago. Bizikletak alokatzeko zerbitzua dauka, baita sauna, kai pribatua, hondartza eta jatetxea ere.

NESTOR HOTELA Zaharberritutako antzinako aletegi hau guztiz ekipatua dago eta artisten erakusketak hartzen ditu maiz. Bi artistaren ardurapean dago: Pia Rousku eta bere senarra, Frank Hellgren diseinatzailea. sukaldaritza aparta da. William Hellgren chefaren sukaldaritza aparta da.



SEESTADT

Diseinatzaile eta arkitektoak emakumeak direnean

Testua **Ane IPARRAGIRRE** Argazkiak **Getty Images**



Vienako Seestadt auzo berrian emakumeak dira diseinatzaile eta arkitektoak. Emakumeak dira etxeak, kaleak eta espazio publikoaren inguruko erabakiak hartzen dituztenak. Kale-argien indarra, espaloi arteko tarteak, kaleen izenak... Orain arte ez bezala, hirigintza kontuetan euren iritzia da nagusi. “Frauen bauen Stadt” du izena proiektu berritzaileak; hau da, “Emakumeek eraikitzen dute hiria”.



Kaleak eta espaloiak zabaldu dira, argiak areagotu, kirol-esparruetako sarbideen kopurua handitu... Emakumeen premiak kontuan hartzen dituzten deliberamenduetan oinarritzen da auzoaren bilakaera.

Frauen bauen Stadt” (Emakumeek eraikitzen dute hiria). Izen hori du Vienako Seestadt auzoan abian jarritako proiektu berritzaileak. Zein da berezitasuna? Bada, emakumeek beraiek diseinatzeko dutela auzoko espazio publikoa, etxebizitzak eta kaleak. Orain arte gizonezkoek inori galdetu gabe hartutako erabakiak egun emakume arkitekto eta diseinatzaileen eskuetan daude. Beraz, euren premiak kontuan hartzen dituzten deliberamenduetan oinarritzen da auzoaren bilakaera. Eta ikuspuntu aldaketak, noski, eragin nabarmenak sortu ditu.

Hirigintzaren, espazio publikoaren eta etxebizitzaren inguruan erabakiak hartzerakoan emakumeen ahotsak isilarazi dituzte gehienetan. Hain zuzen ere, Vienako egitasmo berritzaileak horixe saihestu nahi du eta, bide batez, esparru inklusiboak lortzea helburu duten aldaketak bultzatu.

Seestadt auzoa etengabe garatzen ari da azkenaldion. Hiriaren ekialdean kokatua, nabarmen hedatzen ari da eta, etorkizunari begira egindako aurreikuspenen arabera, sekulako hazkundea izango du: gaur egungo 8.300 biztanleetatik 20.000 izatera pasatuko da 2030ean.

Beraz, auzoa hankaz gora dago zenbait tokitan, eraikitze-prozesuan murgilduta. Dena dela, “Emakumeek eraikitzen dute hiria” hizki handiz dioten kartelak ikus daitezke nonahi, auzoan gertatzen ari denaren berri emanez.



Sabina Riss arkitekto eta unibertsitateko ikertzailea generoaren eta hiri-plangintzaren arteko harremanean aditua da. Akaso horrexegatik du gaitasun berezia Seestadt auzoan gertatzen ari dena era erraz eta argian azaltzeko. Haren arabera, emakumeek hiri-diseinuan duten rol garrantzitsuan arreta jarritz zera lortzen da: agerian uztea gizonek izugarritzko boterea dutela eraikitako ingurunearen konfigurazioan; izan ere, hiri-garapenari buruzko hautu erabakigarriak hartzen dituztenak, tartean bankariak, gizonak dira. Riss-en datuen arabera, hirigintza arloko erabakien %5-10 soilik dago emakumeen esku, kasurik onenean.

Eraikin berrien diseinuan aktiboki parte hartzeaz gain, emakumeak dira kale berrien protagonista nagusiak. Hannah Arendt filosofoa, Janis Joplin abeslaria eta Pippi Kaltzaluze dira auzoko kaleen izenetako batzuk.

KALEEN IZENAK Wojciech Czajak zuzenean parte hartu du auzoaren itxuraldaketan, eta Vienako kaleetan orain arte gizonei protagonismoa emateko joerarekin lotzen du emakumeen aintzatespenik eza. «Vienako kaleen %92k gizonen izenak dituzte. Horrek, jakina, ez du historia eta errealitatea islatzen; beraz, hemen, auzo berezi honetan, ia leku guztiek dituzte emakumeen izenak, arte, politika, ekonomia, arkitektura eta beste esparruetan merezimendu osoz gailendu diren emakumeenak».

Auzoa bera ikusgarria bada ere, egunotan arrazoi bat gehitu zaio bisita egiteko motiboen zerrendari: arkitektoei buruzko erakusketa egon da ikusgai. Bere diseinuekin Seestadt auzoko proiektuari ekarpenak egin

**Emakumeak dira
auzoko kale
berrien
protagonista
nagusiak: Hannah
Arendt, Janis
Joplin, Pippi
Kaltzaluze...**



Seestadt auzoa etengabe garatzen ari da azkenaldion. Hiria-aren ekialdean kokatua, nabarmen hedatzen ari da eta, etorkizunari begira egindako aurreikuspenen arabera, sekulako hazkundera izango du: gaur egungo 8.300 biztanleetatik 20.000 izatera pasatuko da 2030ean. Dena dela, eraikinen diseinuak, argazkietan ikusten den bezala, askotarikoak dira.

dizkion Carla Lo arkitektoaren arabera, Vienako plangintza politika 2018an hasi zen eguneratzen, aldatzen, egokitzen; hain zuzen ere, Kathrin Gaal hiriko Etxebizitza Departamentuaren buru izendatu zutenean. Ardura handiko postu hori lortu zuen lehen emakumea izan zen. «Bitxia izan zen. Adibidez, bera sail horretan sartu bezain laster, ama ezkongabeen beharrianak kontuan hartzen hasi ziren hirigintza prozesuak lizitatzeko orduan».

ARGI GEHIAGO, SEGURTASUN HANDIAGOA Emakumeen beharrak asetzeko nahia Vienako hiri-plangintza modernoaren hainbat esparrutara eraman daiteke: kaleetako argiak areagotzetik kirol-esparruetako sarbideen kopurua handitzera (emakumeak seguruago senti daitezen), edo osasun-instalazioak hobetzera. Gainera, bizitokietan berrikuntzak sartu dira, eta emakumeek asko eskertu dituzte; besteak beste, partekatutako areto komunak izatea, fakturen prezioak jaisten laguntzeaz gain, haurren zaintza banatzeko aukera errazten duelako.

Aldaketak, gainera, areagotuz doaz auzoan bertan, baina Gaali benetan gustatuko litzaiokeena da Vienako proiektua beste leku batzuetan ere praktikan jarri ahal izatea; hau da, euren esperientzia besteekin partekatzea, emakumeak kontura daitezen posible dela orain arte isilarazitako ahotsa askatzea.



Erakusketan, gainera, mundu osoko 18 emakume arkitekto eta hiri-pla-nifikatzailearen lorpen handiak ezagutu ahal izan dituzte bisitariek, haien lanak ez baitira ezagutzera eman merezi bezainbeste. Beste arlo askotan bezala, emakumeak denbora luzez egon dira aktibo hiri-espazioen era-ketan, baina gutxitan eman zaie gizonen aintzatespena edo ospea.

Adibide bat: 1912an, Marion Mahony Griffin arkitekto estatubatuarrak aurkeztutako proiektuak irabazi zuen Canberrako hiri lorategi baten di-seinua aukeratzeko nazioarte mailan egindako lehiaketa, baina ez zuen berak jaso saria, bere senarrak baizik.

«Gaur egun ere, emakumeak proiektuetatik kanpo» daudela uste du Woj-ciech Czaja erakusketako komisarioak, arkitekturako saririk ospetsue-narekin lotutako gertakizun salagarria aipatuz. «Hor dugu Lu Wenyuren kasua; senarrak irabazi zuen Pritzker saria, proiektuak beti elkarrekin egiten zituzten arren. Eta hori 2012an gertatu zen».

Pritzkerreko kristalezko sabaia hautsi zuen lehen emakumea Zaha Hadid izan zen, 2004an, 25 urtez gizonezkoen eskuetan soilik izan ondoren. Gero, zorionez, beste batzuk etorri ziren: Kazuyo Sejima, 2010ean; Carme Pigem, 2017an; Yvonne Farrell eta Shelley McNamara, 2020an; eta Anne Lacaton, 2021ean.




A close-up photograph showing a person's hand reaching out to touch the carapace of a large sea turtle resting on a beach. The beach is composed of small, dark and light-colored pebbles. The person's arm is visible, wearing a thin, reddish-brown braided bracelet with a small blue circular charm. The sea turtle's shell is dark brown with visible scutes. The background is a vast expanse of the pebbly beach under bright, natural light.

**Galapagoak,
urpeko laborategi
erraldoi**



Testua **Eli TXAPARTEGI** Argazkiak **Getty Images**

Galapagoak aire zabaleko laborategi erraldoia dira, Espezieen Eboluzioaren teoria zehazteko Darwinek baliatu zuena. Monitorizazio-programen bidez, hainbat erakunde zientifikok marrazoak eta dortokak aztertzen dituzte, lortutako datuekin haien babes maila handitu ahal izateko. Gu haiekin itsasoratu gara.



Galapago uharteetan –bertan bizi diren dortoka erraldioen izena dute– 2.900 itsas espezie baino gehiago aurki daitezke; horietako %25, endemikoak. Ozeano Barean kokaturiko uharteok (Ekuadorreko kostaldetik mila kilometro mendebaldera) lur eta itsas biodibertsitate aberatsa dute; batez ere, lau korrante hotz eta beroren elkartzeari esker, nutriente asko duelako bertako urak. Horrexegatik, Galapagoak Parke Nazionaleko (PNG) kideek, Charles Darwin Fundazio (FCD) eta beste erakunde zientifiko batzuekin batera, Ekuadorreko artxipelagoan espezieen jarraipen- eta markatze-lana egiten dute. Proiektuaren helburua, datuak bildu eta analisi zientifikoak egiteaz gain, animaliei nazioarteko bakarkako kodea ezartzea da. Kasu batzuetan, satellite bidezko bilaketa-balizak ere erabiltzen dituzte.

PNGk 300 irteera baino gehiago egin ditu itsasora marrazoen jaiotza-eremuak identifikatzeko edo helduak xakitzeko. Irteera bakoitza esperien-

**Monitorizazio-
programen bidez,
hainbat erakunde
zientifikok marrazoak
eta dortokak aztertzen
dituzte, lortutako
datuekin animalion
babes maila areagotu
ahal izateko.**

**Bisturia azkar
mugituz, biologoak
larru lagina hartu,
zenbakitutako
plastikozko
hagaxka hori bat
finkatu eta txip
elektronikoa
txertatu du dermis
lodiaren azpian.
Gero, emeki-
emeki, marrazoa
itsasoan askatzen
dute berriro**

tzia paregabea da. Gurea kolore urdin turkesa duen itsaso infinituan herabeki agertzen den hegalekin hasi da. Txalupara hurbildu bezain laster harrapatu dute marrazoa, itxuraz aparteko arazorik gabe, baina harrapaketa laburra izan da, berehala uretara itzuli baita; hori bai, txip bat jarrita, zientziari Galapago uharteetako espezie enblematikoetako bat arakatzea ahalbidetuko diona.

«Ikusten duzue? Han!», oihu egin du Alberto Proañok, itsasontzitik nahita botatako beita batek erakarritako marrazoa atzamarrez seinalatzen duen bitartean. 34 urteko biologoa da eta pita bota du. Amua limatuta dago ez minik ez kalterik eragin ez dezan. Oraingoan, hala ere, ez dago zortetik. Pelikano batek karnata lapurtu du bat-batean. Eta, noski, marrazoa ihesi joan da.

MARRAZOEN BILA Eguzkiak gupidarik gabe berotzen ditu Ozeano Bারেko irla bolkanikoak eta guk, hantxe egon behar, itxaronaldia luzatuz. Ordubete pasatu da. Beste marrazo bat hurbildu da eta kosk egin du, baina azkenean horrek ere ihes egitea lortu du. Motorra martxan jarri eta txalupa beste gunera batera doa.

Ur-azalaren azpian itzal bat sumatu dugu. Albertok pita bota du berriz. «Badaukat!», oihukatu du zenbait saiakeraren ondoren. Animalari hurbiltzen eta urruntzen utzi dio. Helburua, dirudienez, nekatzea da. Gero, eskuak eskularruz babesturik, indar guztiarekin tira egin eta ontzira hurbildu du.

Animalia, antzemandako arriskuari aurre egin nahian eta erabat beldurtuta, borrokan ari da. Ondorioz, txalupa kulunkatzen hasi da. Kapitaina eta bere laguntzailea istriborrean kontrapisua egiten saiatu dira, ontziak «hegan» egin ez dezan. Galapagoak Parke Nazionalako (PNG) beste bi zaindari erreskatatzera etorri dira, eta, azkenik, marrazoa sokekin lotu eta itsasotik atera dute. Ondoren, markatze prozesua hasi da, baina «oso azkar egin behar dugu, marrazo bat ezin baita uretatik kanpo minutu batzuk baino gehiago egon». Albertoren hitzak dira. Esperientziaren hitzak, beraz.

Karelaren gainean xakituta, neurriak eta bestelako ezaugarriak zehaztu ditu: 2,30 metro luze, emea, 150 kilo inguru, 15 urte inguru. *Carcharhinus galapagensis*, Galapago-marrazo ale ederra, artxipelagoan bizi diren 36 espezieetako bat. Bisturia azkar mugituz, biologoak larru lagina hartu, zenbakitutako plastikozko hagaxka hori bat finkatu eta txip elektronikoa txertatu du dermis lodiaren azpian. Gero, emeki-emeki, marrazoa itsasoan askatzen dute berriro. Segundo batzuetan, hegala urrundu eta desagertu egin da itsaso zabalean. «Azterlan honek aukera ematen digu jakiteko urtearen zein sasotik eta zenbat denboraz geratzen diren eremu batzuetan», gaineratu du Albertok, pozik eta harro, jardunaldi berean bigarren alea markatzeko parada izan duelako.

BESTE HELBURU BAT: ITSAS DORTOKAK Aste berean aurreikusitako beste eginkizun batek adrenalina gutxiago eragin du baina, hala ere, desafiatazalea izan da oso. Egunsentian, Albertok eta Jennifer Suarezek

(33 urte) –biologoa eta parke-zaintzailea bera ere– beste irteera bat egin dute euren taldearekin. Itsas dortokak bilatzera atera dira. Abiatu dira arraun txalupa batean, nondik hamarka dortoka ikusi dituzten olatuetan bihurrika. Alabaina, urautsiek hurbiltzea eragotzi dute. Horregatik, aingura aurrerago bota dute, Floreana uhartera doan kala batean. Eta, gero, bi orduko ibilaldia egin behar izan dute, oinez, laba beltzeko plakadun arroken artean, non itsas iguanak eguzkitan jartzen diren maiz.

LAGINAK HARTU ETA XAKITU Hala ere, ahalegina egitea merezi izan du, bide makurraren amaieran, hondartzan, bat-batean, saria izan dute-lako: dortoka talde bat. «Ez utzi ihes egiten», esan du Jenniferrek. Taldeko kide bakoitzari dortoka bat egokitu zaio eta, adostutako seinalea entzun bezain laster, harea zurian korrika hasi dira.

Dortokak, arrastaka, ihes egiten hasi dira frenetikoki, ur gardenera albait arinen iritsi nahian. Baina biologoek, kontu handiz, beren belaunen artean geldiarazi dituzte eta oskolari tinko eutsi, eskuekin begiak estaltzen dituzten bitartean, lasai daitezzen. Ondoren, laginak hartu eta xakitu egin dituzte, eta azkenean berriro askatu. Eta biologoak, berriz, zain gelditu dira.

Guztira, 2002az geroztik, 18.000 dortoka baino gehiago identifikatu dituzte. Batzuk Costa Rican, Perun eta Mexikon. «Espezie enblematikoen jarraipena egiteko hainbat programa ditugu, populazioa ezagutzeko, zerk mehatxatzen dituen eta zerk eragiten dien jakiteko», gaineratu du Jenniferrek. Izan ere, helburu nagusia da «haien babesa ahalbidetuko duten datuak sortzea», marrazoekin bezala, baina baita itsas lehoiekin, koralekin eta iguanekin ere; hau da, Galapagoak aparteko leku bihurtzen dituzten espezie guztiekin. Izan ere, 1978an Gizateriaren Ondare Natural izendatu zituzten «uharte sorginduak» ere esaten dieten hauei.

IRAUNGITZAT JOTZEN ZEN DORTOKA Orain dela gutxi, gainera, PNGk duela ehun urte baino gehiago desagertutzat jotzen zen dortoka baten aurkikuntzaren berri eman zuen. Dirudienez, ahaideak izan ditzake Fernandina uhartean, Ekuadorreko uhartediko mendebaldekoenean.

Danny Rueda PNGko zuzendariak adierazi zuenez, aurkikuntzak Galapagoetan dortoka kolonia berreskuratzeko aukera paregabea eskaintzen dio nazioarteko komunitate zientifikoari. «Orain, Fernandina uhartearen planifikatzen ari gara; bertan dortoken gorotzen laginak aurkitu dira eta horrek aukerak zabaltzen ditu espezie bereko beste batzuk aurkitzeko». Helburua, kasu horretan, emaitzak berresteko azterketak egitea eta iker-tzea litzateke eta, bateragarria izanez gero, Fernandina bertako dortoka motekin birpopulatzeko programa batean pentsatzen hasiko lirateke zientzialariak.

Duela bi urte, PNGko ikertzaileek dortoka erraldoi eme bat aurkitu zuten Fernandina uhartean. AEBetako Yale Unibertsitateak ikerketa genetikoak egin zituen eta DNA alderatu zuen uharte beretik 1906an ateratako beste batekin. *Chelonoidis phantasticus* espeziekoa zela ondorioztatu zuen ikerketak, duela mende bat baino gehiago desagertutzat jo zena.





PITILLASEKO AINTZIRA

Hegaztien behatoki paregabear

Testua eta argazkiak **Ane IPARRAGIRRE**

Ornitologia zaleek eta, oro har, natura maite dutenek izugarri gozatuko dute Pitillaseko aintziran; batez ere, hamaika hegazti ikusteko aukera paregabear izango dutelako: zikoinak, antzarak, arabazozoak, murgil handiak, txori-zezenak, zingira-mirotzak, erle-txoriak, ainarak...




Pitillaseko naturagunea Nafarroa erdialdean dago, Uxueko mendiaren magalean, Iruñetik hirurogei kilometrora. Natura-erreserba da, Hegaztien Babesgune Berezia, Nazioarteko Hezegune Garrantzitsua eta Nafarroako urtegi naturalik handiena: 216 hektarea ditu luze-zabaleran eta, gehienez, hiru metroko sakonera. Egia esan, estepa-paisaiaren erdi-erdian, bisitarien zentzumenak bizkortu egiten dira, mugimendu, kolore eta soinuen lasaitasunaren eraginez.

HEGAZTIEN BEHATOKI PAREGABEA Lehen-lehenik, bisitaldiari ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko, komeni da ibiltaria hegaztien behatokira hurbiltzea; batetik, leku bikaina delako natura-erreserban babesten diren espezieen lumajea eta koloreak ikusteko; eta, bestetik, urtegi naturalaren ezaugarrien berri zehatza izango duelako, panel, material grafiko eta ikus-entzunezkoen bidez. Horrez gain, nahi izanez gero, prismetikoak eta teleskopioak erabiltzeko aukera izango du, baita hiru bidexka autogidatu azaltzen dituzten gida-liburuxkak eskuratzeko parada ere.

Lehenbiziko ibilbideak kilometro bat du eta hezeguneko hegaztiak zein landareak ezagutzeko aukera eskaintzen du; bi-

Pitillaseko aintzira bisitatzen dutenen zentzumenak bizkortu egiten dira, mugimenduek, koloreek eta soinuek iradokitzen duten lasaitasunaren eraginez.



garrena, berriz, bost kilometrokoa da, eta aintzira urez hornitzen duten errekek erakusten ditu bereziki; eta, azkenik, hirugarrenak lakua eta Pitillas lotzen ditu hiru kilometroko ibilbidean.

Aintziraren iturburuari dagokionez, azpimarratu behar da estepa motakoa dela, jatorriz endorreikoa; hau da, ez du ibai-irteerarik itsasora. Berez sortutako hezegunea bada ere, giza jarduerak aldarazi du, mendez mende. Aspaldian, urez-tapen-ura gordetzeko erabili zen, eta, ondoren, XVI. mendean presa gehitu zitzaion. 1960ko hamarkadan, ordea, ingurua lehorrarazi zuten, nekazariak erabil zezaten, baina gazitasun handiko bazter idorra denez, 1976tik aurrera berezko bilakaera izan du, nekazariak lurak lantzeari utzi ondoren.

EHUN BAT ESPEZIEREN ATERPE Gaur egun, Pitillaseko estepa-lakua ehun bat espezieren aterpe bilakatu da; hau da, ia-ia Nafarroan dabilzan hegazti espezie guztien herenaren babesleku. Beraz, Nafarroako bigarren urtegi naturala da hegazti habiagileen aniztasunari dagokionez, eta lehenbizikoa, berriz, hegazti migratzaileen pausalekuari dagokionez.

Hain zuzen ere, hegazti-aniztasunak egiten du berezi Erriberako hezegunea. Une oro da berezi. Beraz, edozein urtaro egokia da naturaguneaz gozatzeko. Alabaina, hegaztiak ikusi nahi dituenak gehiago gozatu du, seguruenik, neguan; batik bat, hegazti urtarrek Pitillas aukeratzen dutelako negua pasatzeko edo ugaltzeko. Leku hautatua da, gainera, mendebaldeko Pirinioetako bideari jarraituz migratzen duten hegazti askoren atsedenerako eta elikadurarako.



MARTXOTIK EKAINERA ARTE, TENTUZ Beraz, martxotik ekainera bitartean (ugaltzeko garaian), hobe da bestelako ibilbideak egitea, gizakiaren presentziak hegazti ugaltzaileei traba egin ez diezaaien. Hori bai, udaberritik abuztura, koartza gorrien hegaldi dotoreez gozatzeko parada izanen dute bertaratzen direnek. Gainera, maiatzeko ilunabarretan txori-zezenen marru sakonak entzungo dituzte, akaso.

Espezie negutarren artean nagusi dira, besteak beste, txilin-porta lepabeltza, zingira-mirotza, koartza hauskara, zertzeta arrunta, kopetazuri arrunta, antzara, ahate moko zabala eta basahatea. Dena dela, bi hegazti nabarmentzen dira, aintziran erruz dabiltzalako: txori-zezena eta tximutxa. Lehenak lezkadia aprobetxatzen du; bigarrenak, berriz, landaretza zingiratarra, martxotik ekainera habia egiteko.

Gezurra badirudi ere, aintzirara lehen aldiz joaten diren gehienei deigarri egiten zaie aspaldi entzun gabeko soinua bertan sumatzea: ur-igel arruntaren kantuak, hain zuzen ere.

Tximeletak gustuko dituztenak ere harrituta gelditzen dira jakitean Tomares ballus tximeletaren hazkuntza-gune bakarra Pitillas dela Nafarroan.

Aukera izanez gero, behintzat, eguna aintzira inguruan igaro ondoren, irteera luza daiteke inguruko altxorren bat bisitatuz. Eskaintza zabala da: Erriberriko gaztelua, Olivako monasterioa edo Uxue, hots, Erdi Aroko herri xarmagarria, non ezin den galdu artzain-apurak jateko aukera paregabea. Modu gustagarria, benetan, eguneko plana bukatzeko!



Nestor Basterretxea, Urratsez urrats, Gasteizen

URRIAK 16-ABENDUAK 8

“Nestor Basterretxea. Urratsez urrats” izenburupean, Bermeon jaiotako artista protagonista duen bisita gida-tuen programa abian da Gasteizen. Zehazki, hiru gune izango dira zabalik udazkenean: Gasteizko Legebiltzarra, Vital Fundazioa eta Artium museoa.

Bisitak, ordu eta erdikoak, oinez egiten dira, larunbat, igande eta jaiegunetan, gaztelaniaz zein euskaraz. Bisitaldia Legebiltzarreko “Izaro-Nestor Basterretxea” erakusketan hasten da; ondorengo geldialdia Vital Fundazioan da, non artistaren 300 artelan biltzen diren –

horietako asko argitaratu gabeak eta bere familiak utzitakoak– eta, azkenik, Artiumen amaitzen da ibilbidea, “Zeru bat, hamaika bide” erakusketarekin.

Vital Fundazioko bildumari dagokionez, Basterretxearen obraren atzera begirakoa da, artistaren lanaren 60 urteko berrikuspena, zeinak artistaren sortze-prozesuan oinarritzko izan ziren bi elementu dituen ardatz: marrazkia eta “bertsioak”; hau da –haren seme Gorkaren hitzetan–, «hasierako zirriborroen inguruan artistak berak urteak pasa ondoren egindako berrikuspenak. Antolatzaileen esanetan, artistaren familiaren ikuspegitik antolatu da erakusketa, eta, senideak gertukoenak direnez, izaera berezia du.

Santurtziko Nazioarteko Antzerki Jaialdian, hamabost ikuskizun

IURRIAK 29-AZAROAK 28

Itziar Lazkano, Patxo Telleria, Ramon Barea eta Ander Lipusek hartuko dute parte, besteak beste, Santurtziko XLII. Nazioarteko Antzerki Jaialdian. Guztira, 15 antzezlan eskainiko ditu jardunaldiak Serantes Kultur Aretoan.

Azaroaren 6an “Hasiberriak” ikusi ahal izango da; 6an, “Amodioen merketa”; 7an, ‘Los remedios’; “Currents”, 12an; “Doble o nada”, 13an; “Una historia de amor”, 14an; Amancay Gaztañagaren “Atzerrian lurra garratz”, 18an; 19an, Ramón Barearen “El viaje a ninguna parte”; “El viento es salvaje”, 20an; “Memoria gordetzen”, 21ean; “Nevermore”, 27an; eta, azkenik, 28an, “Vidas enterradas”.

Ikastaroak sei orduko iraupena izango du. Gainera, irailaren 16an hitzaldi ireki bat eskainiko du Garciak elkartearen Youtubeko kanalean. Parte hartzeko mezu elektronikoa bidali behar da info@euskalirudigileak helbidera irailaren 10a baino lehen.



EDUARDO GALEANOREN «LATINOAMERIKAREN ZAIN URRATUAK», EUSKARAZ

Eduardo Galeanoren “Latinoamerikaren zain urratuak” liburua euskaratu du Iñaki Alegriak. Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) argitaratu du Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Itzulpena zer dela-eta egin nahi izan duen azaldu du Alegriak: «Liburua 1985an irakurri nuen eta esaldi batzuk itzuli nituen Komite Internazionalistekin, Nikaragua sandinistaren testuinguruan, antolatzen ari ginen erakusketa baterako. Eta iruditut zitzaidan liburu horrek euskaraz egon behar zuela. Beste inork egin ez duenez, 35 urte geroago, jubilazioaz baliatuta itzuli dut».

Latinoamerikaren zain urratuak
Eduardo Galeano
Iñaki Alegria (itzulpena)
UEU, 2021
358 orrialde. Euskara

Lucía Lacarra & Matthew Goldin-en “In the still of the night”: dantza purua eta zinema hausnarketa

AZAROAK 7

“In the still of the night” dantza ikuskizunean, dantza puruaren eta hausnarketa zinematografiakoaren eskutik kontakizun eder batean murgilduko dira Arriaga antzokiko ikusleak, Lucía Lacarra eta Matthew Golding dantzari eza-gunen eskutik.

Oraina eta iragana nahasten dituen istorioan, bi pertsonaren gordeleku emozionalak askotariko ikuspegietatik argizatuko dira, 60ko hamarkadako musika-pieza arrakastatsuak lagun.



Kontzertua, Baigura Ikastolaren 10. urtemugan

AZAROAK 13

Zea Mays, Willis Drummond, Nat & Watson eta DJ Bull. Horiek guztiak arituko dira taula gainean Lekornen, azaroaren 13an. Kontzertua berezia izango da, Baigura Ikastolaren 10. urtemugaren karia-tara egingo baita. Hodi Aldean gelan hasiko da, 19:30ean. Sarrerak 16 (bertan erosita) eta 14 (aurretik) eurokoak izango dira.



«Diskomania», 25 erretratu musikarekin lotuta

AZAROAK 14-APIRILAK 25

Musikarekin lotura duten euskal kulturako 25 pertsonaren erretratuak daude ikusgai Bilboko Berreginen Museoko «Diskomania» erakusketan. Besteak beste, La Basu, Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi eta Gariren irudiak ikus daitezke, Jose Madrid-ek egindakoak. Alderdi artistikoa azpimarrazten da, artearen plastikaren eta rockaren lehen oroitza-penen artean, betiere.

ZINEBI jaialdiko lehen Ohorezko Mikeldia, Margarethe von Trotta-rentzat

AZAROAK 12

Zinebi Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak Margarethe von Trotta Berlingo aktore, gidolari eta zuzendariari emango dio 63. edizioko lehen Ohorezko Mikeldia.

Azaroaren 12an jasoko du saria, zinemaldiaren inaugurazio ekitaldian. «Zinemaren sendotasunagatik eta zintzotasunagatik, eta Alemaniako zinema berriaren emakumezko ahots handi gisa hasieratik izan zuen bikaintasunagatik» jasoko du Mikeldia.

Literaktum jaialdian, David Grossman, Leila Slimani eta Kirmen Uribe

AZAROAK 8-21

Donostiako Literaktum jaialdian parte hartuko duten idazleen artean David Grossman – Man Booker Prize sariaren irabazle eta hainbat urtetan Nobel sariarako hautagai izandakoa– eta Leila Slimani –2016an Goncourt saria jaso– daude. Lehena “La vida juega conmigo” lanaz arituko da eta bigarrenak, berriz, “El país de los otros” azken lana izango du hizpide. Isabella Figueredo, Eider Rodríguez, Kirmen Uribe, María Dueñas eta María Belmonte ere letren jaialdian izango dira.

World Press Photo: prentsa argazkilaritzako 159 irudi Montehermoson

URRIAK 15-AZAROAK 14

Gasteizko Montehermoso kulturunean –19 urtez jarraian egin izan den bezala– World Press Photo lehiaketan saritutako prentsa argazkiak daude ikusgai. Guztira, 159 irudi bildu dira, 28 herrialdetako 45 argazkilarik eginak. Ur biltegira gerturatzaren direnek «istorio ezezagun eta harrigarriak» topatuko dituzte, tartean, pandemiaren ingurukoak; adibidez, lehen saria jaso duena: Mads Nissen danimarkarraren “Lehen besarkada”.



Ehizaren Jardunaldietan, menu bereziak udazkenean

URRIAK 16-AZAROAK 30

Udazkena iristean, ehizak jende ugari erakartzen du Nafarroako Mendebaldeko Pirinioetara. Baina lerro hauetan ez gara ehiza zaleez ari, baizik eta oturuntza gustagarriak gogoko dituztenez, hitzordu egokia baita haientzat Ehizaren Jardunaldi Gastronomikoak.

Baztango, Malerrekako, Bortzirietako, Bertizaranako eta Xaretako herriek menu bereziak eskaintzen dituzte.



Tbilisi

«Ur beroen hiria»

Testua **Eli TXAPARTEGI** Argazkiak **Getty Images**

Tbilisi ez da oso turistikoa. Oraindik, ez. Akaso, horrexegatik liluratzen du bisitaria, bat-batean hiri alai, dinamiko eta abegikorra aurkitzen duelako. Ekialdearen eta Mendebaldearen artean estrategikoki kokatuta dago Georgiako hiriburua.



Tbilisi hiriburuan harmonian bizi dira meskitak, elizak, sinagogak, eraikin modernoak eta egurrezko balkoi deigarriak dituzten kolore biziko etxe zaharkituak; dirudienez, Zetaren Ibilbideko merkataritza-gune oparoa izan zen hiriaren historia luze eta korapilatsuaren seinale. Bisita Leninen Plaza zaharrean has daiteke. Egun, Askatasunaren Plaza da. Rustaveli etorbidetik –hiriko garrantzitsuena– aurrera egin ahala, honako eraikin hauek aurkituko ditu bisitariak bidean: Georgiako Museo Nazionala, Opera Jauregia eta Arte Ederren Museoa, egun Pirosmanni-ren artelanik onenak biltzen dituen. Prospero's kafetegi-liburudenda ezaguna ere inguruan dago.

Handik oso gertu, Shavteli kalea dago; hori ere jendetsua eta zenbait geldialdi egiteko aproposa: Anchiskhati Basilika –fresko zoragarriak dituen VI. mendeko tenplua–, Patriarchate –Georgiako Aita Santuaren jauregia dena–, eta Erlojuaren Dorrea, Gabriadze antzokiaren ondoan. Azken hori ezaguna da, batez ere, eskaintzen dituen txotxongilo ikuskizunengatik.

KALA, KALE-LABIRINTO ERAKARGARRIA Behin hara iritsita, alde zaharreko kale-labirintoan galtzea aholkatzen dute. Kala da hiri zaharren erdigunea. Georgiako historia gogorarazten duten eliza, museo eta landarez betetako etxe okertu eta koloretsuz josita dago. Seguruenik, konturatu gabe, Kote Abkhazira iritsiko da bisitaria; hau da, Ardogileen kalera. Sinagoga Handia eta Siongo eliza ere bertan dira.





Samebako katedrala izan liteke ibilbidearen hurrengo geldialdia. San Elijah tontorrean dago eta hiriko edozein txokotatik ikus daiteke, 78 metroko altuera baitu. Gainera, 15.000 lagun har ditzake.

Beste aukera izan liteke funikularrean Mtatsminda mendira igotzea. Batzuk jolas-parkera joaten dira zuzenean, baina beste batzuek, berriz, nahiago dute hiriaren panoramikaz gozatu bertako begiratokitik: pisu bloke erraldoiak, etxetxo-auzoen, gotorleku hondatuak eta ermita bakartien ondoan. Kaukaso Handiaren inguruak ere ikus daitezke txoko berezi horretatik.

NARIKALAKO GOTORLEKUTIK LORATEGI BOTANIKORA Mendi-tontorra baso artean zeharkatzen duen bidezidorretik sartzen denak Kartvlis Deba edo Georgiako Amaren metalezko estatua ikusi ahal izango du; baita Narikalako mongoliar gotorlekua ere, hiriaren milaka urteko historiaren lekuko isila izan dena.

Behin hara iritsita, bi aukera daude: batetik, oinez itzuli eta bidean ikusi Tbilisi Jumah meskita –otomandarrek eraikia eta azken 300 urteetan hiru aldiz suntsitua eta berreraikia–; edo, bestetik, tirolinaz jaitsi Lorategi Botanikoraino. Kaukasoko handiena da eta, zalantzarik gabe, atsedena hartzeko gunerik egokienetakoa. Noski, baita indarrak berritzeko txoko aproposa ere; eta are gehiago, bertako menua aukeratzen bada: *pkhali* (barazki), *khachapuri* (gatzaz betetako ogia) eta *khinkalis* (haragi xehatuzko pintxoak). Eta, zer esanik ez, plater guztiak chachaz bustitzen badira; alegia, mahatsez edo beste fruta batzuek destilatutako pattarraz.

Eta, behin indarrak berrituta, Meidan izan liteke hurrengo helmuga, plaza horretatik zeharkatzen baita Kura ibaia Metekhira iristeko. Kura Kaukasoko mendien hegoaldean jaio eta, Turkia, Georgia eta Azerbaijanetik igaro ondoren, azkenik, Kaspiar itsasoan itsasoratzen da. Ibaiaz bestaldeko irudia erakargarria da, benetan, koloretako etxeak amildegitik zintzilik agertzen direlako, bata bestearen gainean, egurrezko balkoi deigarriekin. Gainera, hantxe dago Rike parkea, batez ere ilunabarrak gozatzeko leku aproposa.

BAKEAREN ZUBIA ETA UR SULFUROSOEN BAINUAK Halaber, hortxe dago Bakearen Zubia, altzairuzko eta beirazko oinezkoentzako pasabide jendetsu eta modernoa. Tbilisi zaharra barruti berriarekin lotzen du. Gainera, inguruan, Kuraren ertzean, diseinu ikusgarria duen beste eraikin bat ikus daiteke: Fuksas estudioa. Lore forma duen estalki txundigarri eta erraldoiak erakartzen du, bereziki, bisitarien arreta.

Horrenbestez, amaierarako utz daiteke Abanotubani, hiriko auzo zaharberrituena. Ezaguna da, batez ere, ur sulfurosoetako bainuengatik. Hiriaren erakargarritasun nagusi bihurtu ziren Zetaren Ibilbidearen garairik gorenean. Garai haietan 63 bainu zeuden; gaur, aldiz, bost baino ez dira gelditzen. Dena dela, horietako edozeinetan bainu lasaigarria hartzea aukera ezin hobea izan liteke Tbilisiri behar bezala agur esateko. Gainera, batzuek diote hiriaren izena, hain zuzen ere, lurraren errailetatik datozen iturburu naturaletatik datorrela. Horregatik esaten omen diote “Ur beroen hiria”.

Erreportajea zabaltzen duen argazkian, alde zaharreko kale-labirinto koloretsua. Ezkerraldean, hiriko panoramika, denda baten irudia eta Sioniko katedral barruko margoak. Hiriburuan harmonian bizi dira meskitak, elizak, sinagogak, eraikin modernoak eta egurrezko balkoi deigarriak dituzten kolore biziko etxe zaharkituak.

PLASTIKOA: KONTZIENTZIA ARTE BIHURTUTA

4.444 botila. Plastikozkoak denak. Erabilitakoak. Hamika kolore eta tainakoak. Zintzilik. Horiek guztiak jaso dituzte ibaian, Gresiken, Indonesiako Ecoton-eko ekintzaileek instalazio berezi bat egiteko.

Egitasmoaren helburu nagusia izan da herritarrak ibai eta ozeanoetako hondakin plastikoen inguruan kontzientziaztea, baina horretarako metodo deigarria erabli nahi izan dute, erreibindikazioa arte bihurtuz, ahalik eta oihartzunik zabalena lortzeko.

Behaketa ekologikoa eta hezeguneen kontserbazioa helburu duen Ecoton elkarteak lortu omen dute artearen nolabaiteko garrasia.



MARATHON DES SABLES: BASAMORTUAREN XARMA BEREZIA

800 parte-hartzaile izan ditu aurten Saharako basamortuan urtero egiten den Marathon des Sables lasterketak, Tisserdimine eta Kourci Dial Zaid artean egiten den lasterketa bereziak.

Guztira, 250 kilometro egiten dituzte korrikalariek, bost etapatan banatuta. Jakina, ez dira denak iristen helmugara. Arroka, hareak, dunak, tenperatura altuak, gupidarik gabeko eguzki-izpiak, eremu zabalak...


Baldintzak ez dira, ez, samurrak, baina, hala ere, partaide gehienek esperientzia errepikatu egiten dute.



INDIAKO BASAMORTUAN, TURISTEN ZAIN

Rajasthan-eko Sam Villageko Thar basamortuko dunak pandemia-
ren ondorioak pairatzen ari dira
oraindik. Turistarik gabe, game-
luen jabeek ezin dute basamor-
tuko zeharkaldirik antolatu,
orain arte egin duten bezala, eta
dunetan daude, bakar-bakarrik,
bisitariak noiz berragertuko irri-
kaz zain.

Egoera normalean, Indiar
joaten diren bidaiari askok ez
dute galtzen basamortura joa-
teko aukera, baina gaur egun, he-
rrialdean pandemiaren inguruko
datuak larriak direla kontuan
izanda, apenas hurbiltzen da tu-
ristarik Thar basamortura. Hala
ere, han daude zain.



ITSASPEKO BASOAN, IGERI EGITEN

Angels Savvas apneistak MUSAM parkeko 150 eskultura fi-
guratiboen artean egin du igeri, zizelkatutako zuhaitz or-
ganiko eta lurpeko landareen artean. Mediterraneoko
lehen itsaspeko basoa Ayia Napan dago, Zipreko kostal-
dean. Urpekariek eta snorkeleen aritzen direnek, nahi iza-
nez gero, hurbildu eta azter ditzakete artelanak.



HARUKI MURAKAMI LIBURUTEGIA

Tokioko Wasedako Unibertsitateak bertako Nazioarteko Li-
teratura Etxea zabaldu berri du. Horixe du izen ofiziala,
baina Haruki Murakami liburutegia deitzen diote berta-
koek, idazle japoniarraren artxibo pertsonala gordeko due-
lako aurrerantzean. Pozik dira, batez ere Murakamiren
literaturaren jarraitzaileak.



ITSASOA, ODOLEZ GORRITUTA

Faroe uharteetan, Torshavn-en zehazki, ehunka lagun bildu dira itsasertzean, urtero bezala, balea pilotuen eta izurdeen ehizaldietan parte hartzeko. Beste batzuk, berriz, ikustera hurbildu dira, beti bezala. Urak gorritz tindatzen duen «ikuskitzuna» defendatzen dutenek argudiatzen dute «antzinako tradizioa dela».



ZINEMAREN MUSEOA, HOLLYWOODEN

Hollywoodek zinemaren inguruko museoa zabaltu du azkenean; beraz, aspaldiko ametsa errealitate bihurtu du zinema akademiak, jaio zenetik 90 urte bete direnean. Gainera, Renzo Piano diseinatzaileak egindako eraikin ikusgarri eta deigarrian jarri du ikusgai urteetan zehar osatutako bilduma.



#INGOYA, ERAKUSKETA: 35 PANTAILA ETA MILA IRUDI

#InGoya. Horrela deitzen da Madridilgo Fernán Gómez Villa kultur guneak margolariari buruz zabaltu berri duen erakusketa.

Guztira, 35 pantaila handitan proiektatutako mila irudi baino gehiago biltzen dituen erakusketa berezia urtarilerara arte izango da zabalik.

Infografian eta postproduzioan punta-puntako teknikak erabiliz, kolore-zuzentzaileek ahalik eta gehien zaintzen dute jatorrizko paleta eta, ondorioz, bisitaria era errealean murgiltzen da margolanetan.



ARTOA DENEN ARTEAN LEHORTZEN

Gauribidanurren, Bangaloretik 80 kilometro iparraldera, nekazariak kaleak aprobetxatzen dituzte artoa oskolik gabe zabal-zabal barreiatu eta lehortzen uzteko. Bat-batean, kaleak alfombra erraldoi bihurtzen dira, baina, hala ere, auzokideek ez dute eguneroko jarduna eteten, ezta hurrek ohiko jolasak ere.



“MENDE BATEKO OSPEA: AL CAPONEREN ETXEA”

“Mende bateko ospea: Al Caponeren etxea”. Hori da Sacramentoko (Kalifornia) Witherell etxeak enkantean jarri berri duen bildumaren izenburua.

Guztira, gangster famatuaren 174 gauza pertsonal jarri ditu eskuragarri; besteak beste, zenbait altzari eta egun batean bereak izan ziren armak.



MARSK TOWER, ATRAKZIO BERRIA JUTLANDIAN

The Marsk Tower da Frisiako itsas parkeko atrakzio berria. Jutlandia hegoaldeko begiratokiak 25 metroko altuera du eta 300 tona altzairuz egina dago. Dirudienez, DNA molekula baten kate bikoitzean inspiratuta egin zuen diseinua Bjarke Ingels Group (BIG) taldeak. Horren adierazle omen dira eskailerak.

**Lurralde
berrietara
goaz**

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:**-en bidaia aldizkaria euskaraz